

Ortografia

Koma, puntua eta bi puntuak

1. Bete hutsuneak koma (,), puntua (.) edo bi puntuak (:) jartzen.

- Olatzi futbolean pilotan saskibaloian eta errugbian jolastea gustatzen zaio
- Ainhoari amak honakoa esan dio "Pilotalekura joan baino lehen etxerakolanak bukatuta izan beharko zenituzke."
- Unai arropa erostera joan da eta hainbat gauza erosi ditu praka beltz bat alkandora zuria bere ahizparentzako kamiseta urdina eta aitarentzako txapela
- Oihane lasterketa batean korrika egin zuen eta 2 geratu zen Leire izan zen lehena

2. Kokatu puntua (.), koma (,), bi puntuak (:) edo ezer ez (X) hutsuneetan.

Gaur apirilak 3 mendira igo naiz lagunekin Motxilan goizean gauza batzuk sartu ditut hamaiketakoa ur botila eta eguzkitako krema Arianeri hamaiketakoa ahaztu zaio eta nik nirearen zati bat eman diot Oso pozik jarri da eta hau esan dit "Alaitz bihar ordainetan nire aitaren espezialitatea ekarriko dizut euskal pastel zati bat" Ea bihar zer dakarren

3. Zuzendu okerrak. (Berridatzi).

- Aita: harrikoa egiten lagundu dut gaur goizean, bestela errieta egiten didalako,
- Nire ama ingeniaria da eta beti esaten dit: "Asko ikasi behar duzu. bizitzan nahi duzuna izan ahal izateko..."
- Oierrek gauza asko maite ditu, katuak, larrosa, futbola. eta bere lagunekin hitz egitea...
- Iria klaseko eskalatzailerik onena da, Euskal Herriko txapelketan 3. geratu zen pasa den urtean.
- Onintzeri izugarri gustatzen zaio: amarekin arrantza egitera joatea.

